

Jurdana Uriarte Lejarragak, Bermeoko Udaleko idazkari nagusiak, ziurtatzen dot, 2020-07-14(e)(a)n, TOKIKO GOBERNU BATZARRAK erabagi hau hartu dauela:

9. - KATE SAREAREN 2020KO DIRULAGUNTZA IZENDUAREN HITZARMENA ONARTZEA.

Xedea

2020. urterako udal Aurrekontuan aurreikusita dagoen dirulaguntza nominatiboa bideratzeko, Kate Sarea alkatetaz hitzarmena sinatzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Kate Sarea alkatetaren alde 2020. urterako udal Aurrekontuan aurreikusita dagoen dirulaguntza nominatiboa bideratzeko hitzarmena prestatu da.

Bigarrena: 2020ko ekainaren 5ean Idazkaritza Saileko AOTk Justifikatze Memoria eta txosten juridikoa emon ebazan.

Hirugarrena: 2020ko ekainaren 8an, Idazkaritza Saileko AOTk erabagi proposamena emon eban.

Laugarrena: 2020ko uztailaren 3an Kontu-hartzaileak fiskalizazio txostena egin dau.

Argudioak

Lehenengoa: Toki Erregimena arautzen dauan 7/1985 Oinarri Legeak, honakoa xedatzen dau bere 5. artikulua, Toki Erregimenaren Testu Bateratua onartzen dauan 781/1986 EDLaren 111. Artikulua, Herri Administrazioen Prozedura Administrazio Orokorra onartzen dauan 39/2015 Legearen 86. artikulua, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak, bere 28.1 artikulua, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak bere 6. Artikulua eta Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoa arautzen dauan 40/2015 Legearen 47. artikulua eta hurrengokoak hartu dira kontutan.

Bigarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Erregimena arautzen dauan 7/1985 Oinarri Legearen 21.1. artikulua f) eta s) ataletan jasotakoaren arabera, alkateari jagoko, baina 2019ko ekainaren 21eko 1.479 zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu batzarrarengan dago delegatuta.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E400048D1400S202C4W8R3A3

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 15/07/2020
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 16/07/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 16/07/2020
07:52:46

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0099

Data: 03/06/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Erabagia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAGI DAU:

LEHENENGOA: 2020. urterako udal Aurrekontuan aurreikusita dagoen dirulaguntza nominatiboa bideratzeko, Kate Sarea alkarteagaz hitzarmena sinatzea onartzea.

BIGARRENA: Interesdunari erabagiaren barri emotea, hitzarmena sinatu daien.

HIRUGARRENA: Idazkaritza Sailari, Ekonomia Sailari eta Diruzaintzari erabagiaren barri emotea.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkurean erabagi honen barri emotea.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, ziurtagiri hau idazten dot, erabagia agertzen dan akta behin betiko onesprenaren menpean dagoela ohartarazota (Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 EDaren 206. artikulua araberan), Aritz Abaroa Cantuariense alkatearen aginduz eta oneretxiaz.

Orri-oinean sinatzailea eta data



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E400048D1400S2O2C4W8R3A3

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 15/07/2020
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 16/07/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 16/07/2020
07:52:46

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0099
Data: 03/06/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



KATE SAREA ALKARTEAGAZ LANKIDETZA HITZARMENA.

JURDANA URIARTE LEJARRAGA andreak, Bermeoko Udaleko idazkari nagusiak, fede emoten dau

BATU DIRA

ALDE BATETIK: ARITZ ABAROA CANTUARIENSE Jn. (NAN: 72.317.304-Z) Bermeoko Udaleko alkate-udalburua.

BESTE ALDETIK: MIRENLUR SANTIAGO ALBESTEGI And. (NAN: 30.668.484-P), Bermeoko Kate Sarea alkarteko presidentea.

PARTE HARTZAILEAK

ARITZ ABAROA CANTUARIENSE Jn, Bermeoko Udalaren ordezkari eta izenean, 2020ko uztailaren 14ko Tokiko Gobernu Batzarrean erabagitarako jarraiki, eta Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan Legeko 21.1.b) eta r) artikuluek emondako ahalmenaren arabera, eta

beste aldetik,


MIRENLUR SANTIAGO ALBESTEGI And., KATE SAREA alkartearen ordezkari eta izenean, alkarteko presidente legez, horreek karguek emoten deutozan ahalmenen arabera (l. eranskinean, izendapena eta karguaren ahalmenak jasotzen dira).

ADIERAZTEN DABE

Bermeoko Udalaren ahalmenen artean dagoela Diru-sarreraren bermea eta gizarteratzea antolatzea, programatzea eta kudeatzea, Euskadiko Toki Erakundeetako buruzko 2/2016 Legearen 17.1.14) artikulua eta berean, lege bereko 17.1.37) artikulua arabera, garapenerako lankidetzaren alorreko politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16. - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

	Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatzen da.	Sinadurea eta data JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 15/07/2020 ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 16/07/2020 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 16/07/2020 07:52:46	EXPEDIENTE :: 2020IDA_ERA_0099 Data: 03/06/2020 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia
	Kodea: 07E400048D1400S2O2C4W8R3A3		



Eta Udalaren asmoa dala, gitxienezko derrigorrezko ahalmenetatik haratago joanda, arlo bi horreekaz erlazionatutako boluntariotza sustatzea, Bermeoko Udalerrriaren eta bere biztanleen onuran.

Hori horrela, arlo horreetako boluntariotza sustatzen dauan Kate Sarea alkartea egonda, Bermeoko Udalak alkartea lagundu gura dau bere orain arteko boluntariotza sustapenagaz jarraitzeko baliabideak euki daiezan.

Bestalde, Kate Sarea alkartea, irabaz asmo bako alkartea da eta, bere helburuen artean, honeek daukaz: Alkarte-mugimenduari eta gizarte-boluntariotzari zuzendutako proiektuak diseinatzea eta jarduerak garatzea, gabezia-egoerei edo gizarte-larrialdiei erantzuteko; banakako eta taldeko parte-hartzea sustatzea, egoera kaltegarriari aurre egiteko jarduerak garatzeko, pertsonen oinarrizko eskubideak kontuan hartuta; gizartea eraldatzeko tresna bat izatea, funtsean Bermeoren inguruko lankidetzaren esparru baten barruan, eta mugimendu solidario integratzaile baten eragile bihurtzea.

Ondorioz, alderdi bien lankidetzaren eta Bermeoko Udalak emongo deuston dirulaguntza arautzea da hitzarmen honen helburua.

ERABAKITZEN DABE

LEHENENGOA: Hitzarmenaren xedea.

Bermeoko Udalak Kate Sarea alkarteari lagunduko deustoa gabezia-egoerei edo gizarte-larrialdiei erantzuteko eta egoera kaltegarriari aurre egiteko jarduerak eta programak garatu daizan, eta baita bere mugimendu solidario integratzailea bultzatu daian.

Zein lerrotan sartzan dan Plan Estrategikoan ere agertu beharko litzateke.

BIGARRENA: Diru-laguntzaren zenbatekoa.

Zio hau bide dala, Bermeoko Udalak mila euro (1.000 €) ordainduko deustoz Kate Sarea Alkarteari. Diru kopuru hau zatika ordainduko da, 2020. urte barruan, aurrekontuaren 00800-23020-4810131 partidaren pentzura, hain zuzen. Ordaintzeko



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16. - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 15/07/2020
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 16/07/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 16/07/2020
07:52:46

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0099
Data: 03/06/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatzen ahal dozu.
Kodea:
07E400048D1400S2O2C4W8R3A3



modua honakoa izango da: hitzartutako kopuru osoaren % 80, hau da, 800 € hitzarmena sinatu eta gero, eta gainontzekoa, 200 €, diru-laguntza justifikatzen danean.

Ordainketa aurreratua egitearen arrazoia, alkarreak sustatzen dauzan ekintza eta programak garatu ahal izateko gitxieneko diru-kopuruei aurre egiteko alkarrearen likidezia faltan oinarritzen da.

Diru-laguntzaren aurrerapena bermatzeko ez da beharrezkoa izango bermea ipintea, irabazi asmorik gabeko erakunde gizarte ekintzatarako jarduera burutzen duena izateagatik 42.2d) artikulua araberako Diru-laguntzen Erregelamenduarena. Gainera, Kate Sarea alkarrearen ibilbidea ikusirik eta, orain arte be, alkarrearen xede diran helburuak garatu izan dauzala kontutan eukita, ez dalako aurreikusten jasotako laguntza bere helburura ez bideratzea edota bestelako ezertan xahutzea.

HIRUGARRENA: Diru-laguntzaren ezaugarriak.

Diru-laguntzak borondatezkoak eta aldi baterakoak izango dira. Baten emoteak ez deitso derrigortasunik eragingo Bermeoko udalari, eta ez dau beste urte batzuetarako eskubiderik emoten ez aurrekaririk ezarten.

Diru-laguntza ezin izango da gehitu ez berrikusi (ezin da erreklamaziorik egin).

LAUGARRENA: Kate Sarea alkarreak bete beharreko baldintzak.

Kate Sarea alkarreak honako baldintza honek beteko dauz:

- Bermeon taldea eukitzea eta hitzarmenaren xedean aitututako jarduera eta programak garatzea.
- Jarduera eta programa horreek irabazteko asmo barik garatzea, hau da, onuradunen ezelako kontraprestazio barik egitea.
- Bermeoko Udalak beste inoiz diru-laguntzaren bat emon badeitso, diru-laguntza horren kontra egindako gastuak justifikatuta eukitea.
- Hitzarmena sinatzen dan egunean tokiko zerga zorrak ordainduta daukiezala kreditatu beharko dabe. Bermeoko Udalak ziurtatuko dau puntu hau.
- Egunean egotea betebeharr fiskaletan eta Gizarte Segurantzian.
- Ezin izango da inolako diru-laguntza edo laguntzarik emon sexuaren ziozko bereizkeria eragiten dauen edonolako jardueratarako.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16. - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 15/07/2020
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 16/07/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 16/07/2020
07:52:46

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0099
Data: 03/06/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E400048D1400S2O2C4W8R3A3



- g) Kate Sarea alkarteak, entitatearen aurrekontu osoaren %50etik gorako autofinantzaketea izan beharko dau.
- h) Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioan erori izanagatiko zigor- edo administrazio-arloko zigorra jaso ez izana.

BOSGARRENA: Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

Diruz laguntzeko gastuak izango dira zalantzarik gabe beharrezkoak direnak hitzarmen honetan araututako diru-laguntza betetzeko.

SEIGARRENA: Diru-laguntzaren ordainketa eta egin beharrekoak.

Hitzarmenaren lehen ordainketea egin aurretik, 5. puntuaren eskatzen diran baldintzak beteten dirala ziurtatzeko, agiri honek aurkeztu beharko dira:

1. Dirulaguntza jasotzeko baldintzak betetzearen zinpeko aitortpena, Kate Sarea alkarteko lehendakariak sinatuta. Zinpeko aitortpen horretan, boluntario kopurua be zehaztu beharko da, eta baita be hitzarmenean zehaztutakoak betetzeko likidezia falta izatea eta horren arrazoia.
2. IFK-ren kopia eta alkartearen estatutuak aurreko urteetan ez badira aurkeztu.
3. Ogasun Sailaren eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiria esanez egunean dagozala betebeharrak fiskaletan eta Gizarte Segurantzaren.

Agiriak udaleko Erregistro Orokorrean, edo Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeko 16.4. artikuluan jasotako bestelako erak erabiliz. Aurkeztuko dira, 10 laneguneko epean hitzarmena sinatzen dan unetik zenbatzen hasita.

ZAZPIGARRENA: Jasotako diruaren justifikazioa.

Dirulaguntzaren bigarren zatia kobratu ahal izateko, dirulaguntza justifikatu beharko da. Horretarako, agiri honek aurkeztu beharko dira:

1. Erakunde onuradunaren legezko ordezkariak sinatuta txostena non agertzen den baldintzak betetzea justifikatzen duen ekintza txostena. Bertan adierazi



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16. - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 15/07/2020
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 16/07/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 16/07/2020
07:52:46

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0099
Data: 03/06/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E400048D1400S2O2C4W8R3A3



behar du, egindako jarduerak eta jasotako emaitzak ezarritako adierazlearen arabera:

1. Plazaren kostua: emandako dirua/parte-hartzaileen kopurua.
 2. Urtean zehar egindako jarduera kopurua/aurreko urteko jarduera kopurua x 100
 3. Urtean egondako parte-hartzaile kopurua/aurreko urtean egondako parte-hartzaile kopurua x 100
 4. Aurreko urtean guztira emandako dirua/aurreko urtean emandako dirua x100
2. Jardueren sarrera eta gastuen balantzea aurkeztu beharko da, eta bertan agertu beharko da ze neurri ekonomikogaz lagundu diran ekintzak aurrera eroateko (kuotak, bestelako dirulaguntzak, etab.) eta gastuen jatorria (materialeak, garraio gastuak, ...). Puntu honeguz batera faktura originalak edo fotokopia konpultsatuak aurkeztu behar dira. (Udaleko [Berhaz](#) bulegoan konpultsak egiten dira).
3. Gastuen ganeko faktura originalak edo fotokopia konpultsatuak aurkeztu behar dira. (Udaleko [Berhaz](#) egiten dira konpultsak). Egiaztapena egin eta gero, originalak itzuli egingo dira. Ez da onartuko beste gastu batzuen justifikaziorik, horreek ez bada balio dirulaguntzearen helburuak lortzeko.

Emondako diru gutzia gastatu ez bada, justifikazioa eginda, itzuli egin beharko da.

Dokumentazioaren aurkezpena egiterakoan ez bada aurreko puntuetan eskatutakoa zehatz beteten, interesdunak 10 eguneko epea izango dau akatsak zuzentzeko. Denpora tarte horretan ez badira zuzentzen, eskariari uko egiten jakola ulertuko da. Fakturak fakturazioko betebeharrak bete behar dituzte azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuak arautzen dituenak.

Agiri honek ez aurkeztea dirulaguntzea ukatzeko eta ordaindutako lehenengo zatia itzultzeko zioa izango da, baita neurgarriak ez betetzeagatik zehazten direnak ere, DIRU-LAGUNTZA Lege Orokorraren 36. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera. Erakunde onuradunak jaso duen laguntza osorik edo zati batean itzuli ahalko du borondatez, horixe egiteko eskatu aurretik. Eskaera ebatzi egingo da eta, gero,



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16. - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 15/07/2020
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 16/07/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 16/07/2020
07:52:46

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0099
Data: 03/06/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E400048D1400S2O2C4W8R3A3



erakundeari jakinaraziko zaio, ordainketa egiteko epea eta modua. Hori guztia, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 90. artikulua betez.

Lehenengo zatia itzuli behar izatekotan, lege interesak gehituta itzuli beharko da.

ZORTZIGARRENA: Bestelako sarrera edo diru-laguntzen bateragarritasuna.

Jasotako diru laguntza lortu daitekezan bestelako sarrera publiko zein pribatuek bateragarriak izango dira, beti be gain-finantzaketarik ez dagoen bitartean.

Horrela izanda Kate Sarea Alkartea behartuta egongo da bere finantzaketarako lortzen dauzan bestelako sarrera eta diru-laguntzen barri emotera eta, danatara %100etik gorako finantzaketarik lortzen badau, Bermeoko Udalari horren barri emoten, gain-finantzatutako kopuruak berreskuratzeko prozedurari hasiera emon daiezan.

Horrela egingo ez balitz, zigorra ipintzeko arrazoia izango litzake, itzuli beharreko kopuruari lege interesak aplikatzearen kalte barik.

BEDERATZIGARRENA: Euskerearen erabilera.

- Herriaren hizkuntza ezaugarriak kontutan eukita, programak eta jarduerak euskeraz garatuko dira, erabiltzaileek hautatzen daben hizkuntza ofizialean artatuak izateko daukeen eskubidearen kalte barik.

- Publizitatea eta komunikazio ekintzak euskeraz egingo dira bai ahoz, zein idatziz: argitaratzen diran programa, iragarki, ohar, kartel eta gainontzekoak euskeraz egingo dira. Euskerea ez dan beste hizkuntzaren bat erabiltekotan publizitate eta komunikazio ekintzetan, lehenetsun osoa eukiko dau euskereak (3-1).

- Euskerearen kalitatea bermatu beharko da aitatutako ahozko eta idatzizko ekintza guztietan, eta udaleko Euskera Sailaren laguntzea izango dau arraun alkarreak hizkuntza aholkularitza eta laguntzea behar dauenean.

HAMARGARRENA: Debekatutako jarduera sexistak.

- Debeku da pertsonen sexuan oinarritzen den bereizkeria oro, zuzeneko zein zeharkakoa, edozein delarik ere hartarako erabilitako era.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16. - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 15/07/2020
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 16/07/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 16/07/2020
07:52:46

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0099

Fecha: 03/06/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:

Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E400048D1400S2O2C4W8R3A3

- Ezin izango da adierazi, pertsonak, sexu batekoak edo besteak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela, ez eta objektu sexual soilak direla ere. Orobat, ezingo zaie zabalkundea eman emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, horri garrantzia kendu edo horretara bultzatzen duten edukiei.

HAMAİKAGARRENA: Kate Sarea alkartearen betebeharrak:

1. Hitzarmen honetan jasotakoa betetea.
2. Alkartearen ekintzen publikidadean, Bermeoko Udalaren logoagaz agertzea.
3. Bermeoko Udalari lankidetzaren kontrola egiten iztea.
4. Aurretik emondako dirulaguntza guztiak justifikatuta eukitea.

HAMABIGARRENA: Hitzarmenaren jarraipenerako Batzordea.

Hitzarmenaren jarraipena egiteko Jarraipen Batzorde bat eratuko da, zeinetan erakunde bakoitzeko ordezkari bik hartuko daben parte. Batzordea urtean bitan batzartuko da gitxienez.

HAMAHIRUGARRENA: Hitzarmena ez betetzearen ondorioak.

Kate Sarea alkarteak hitzarmen honetan jasotakoak ez betetzeak, diru-laguntza murrizteko edo kentzeko arrazoia izango da, Diru-laguntzak arautzen dauzan 38/2003 Legearen 37. artikulua bat eta, horretarako, lege bereko 42.a artikulua xedatzen dauan prozedura jarraituko da.


HAMALAU GARRENA: Udalaren betekizunak, diru publikoaren erabilerari jagokonez.

Bermeoko Udalaren, bere aldetik, eta Diru-laguntzak arautzen dauzan 38/2003 Legearen aginduari jarraituta, honako eginkizunak beteko dauz:

- Emondako diru-laguntzearen kontrol egokiak egin, diru-laguntza oinarritzen daben helburua eta egintzak benetan burutu dirala ikusi ahal izateko.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16. - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

	<p>Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.</p> <p>Kodea: 07E400048D1400S2O2C4W8R3A3</p>	<p>Sinadurea eta data</p> <p>JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 15/07/2020 ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 16/07/2020 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 16/07/2020 07:52:46</p>	<p>EXPEDIENTE :: 2020IDA_ERA_0099</p> <p>Fecha: 03/06/2020</p> <p>Lekua: Bermeon</p> <p>Erregistro unidatea: Erregistro nagusia</p>
--	--	---	---



- Lege berari jarraituta, diru-laguntzearen oinarriak bete ez dirala ikusten bada edota ez dirala era egokian justifikatu ikusi ezker, desbideratutako diru publikoa berreskuratzeko, egokiak diran prozedura eta espedienteak izapidetuko dauz, hamargarren atalean adierazotakoagaz bat.

HAMABOSGARRENA: Hitzarmenaren iraupena.

Hitzarmen honek 2020. urtean eukiko dau eragina, hitzarmen honi egotziko zaizkio diru-laguntzaren izaerarekin bat datozen gastuak nahiz eta formalizatu aurretik egindakoak izan (urtarrilaren 1etik aurrera urte honen barruan) behar bezala justifikatuta badaude. Aurreko atalean aitaturako ondorioak 2020. urtea amaituta izapidetu edota aplikatzearen kalte barik, beti be preskripzino epearen barruan.

Hitzarmena urtez urte luzatu ahal izango da, gehienezko 4 urtera arte, alde biek ados egon ezker. Luzapena, indarraldia amaitu baino lehen onartu beharko da.

HAMASEIGARRENA: Arau-hauste legez hartuko dira jokabide honeek:

- 1.- Laugarren ataletik bederatzigarren atalera jasotako betebeharrak ez betetzea.
- 2.- Jasotako diru-laguntza ez justifikatzea horretarako emondako epean.
- 3.- Eskuratutako bestelako sarreraren barri ez emotea, bardin publikoak zein pribatuak izan.
- 4.- Gain-finantzaketarik balego, horren barri ez emotea edota itzuli beharreko kopuruak ez itzultzea.

Lehenengo atalean jasotako arau-hausteen kasuan, onartutako diru-laguntza murriztea ekarriko dau zigor moduan, egindako ez betetzeen garrantziaren arabera kalkulatuko dana, ez bada ez betetzeen larritasunagaitik diru-laguntza osorik itzultzea erabagitzen dala.

Beste hiru ataletan aurreikusitako arau-hausteen kasuan, diru-laguntza osorik itzultzea ekarriko dau zigor moduan, eta hurrengo urteetan diru-laguntza barriak eskuratzeko ezintasuna suposatuko dau.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16. - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 15/07/2020
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 16/07/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 16/07/2020
07:52:46

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0099
Data: 03/06/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E400048D1400S2O2C4W8R3A3

Zigor horreek ipinteko, hitzarmen honen hamargarren artikuluan adierazoten dan legez, 38/2003 legeak aurreikusitako prozedura jarraituko da eta, erabagia hartu orduko, interesdunari entzunaldia emoten jakola bermatuko da.

HAMAZAZPIGARRENA: Borondatezko pertsonala:

Jardueretan laguntzeko langile boluntarioak eduki ezker, Kate Sarea izango da erantzulea hirugarrenen aurka, ekintza edo omisioagatik eragindako kaletetan.

- Erantzukizun hori aplikagarria den araudiaren arabera arautuko da.

HAMAZORTZIGARRENA: Konfidentzialtasuna.

Hitzarmen honen ondorioz sortzen dan informazioa isilpeko izaera eduki leike, babestutako datu pertsonal izaera erabiltzaileen ganekoa bada.

Hori horrela, Eskubide Digitalen Bermerako eta Datuak Babesteko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta Europar Legebiltzar eta Kontseiluko (EB) 679/2016 Erregelamendua, pertsona fisikoen babesekoa, datu pertsonalen tratamenduari dagokienean, eta datu hauen zirkulazio askearen gainekoa, bete beharko dira zehatz.

Ez betetzeak egiten dauzan aldeak, aitatutako legeek xedatzen dabezan ondorioen erantzule zuzenak izango dira eta horeetatik eratorritako ondorioei egin beharko deutse aurre, ez betetzea egin ez dauan aldeari ezalako kalterik sortu barik.

Betebeharrak bete dauzan aldeak ez betetzeengaitik ezalako kalterik eukiko baleu, hitzarmena automatikoki apurtzeko ahalmena izateaz gain, izandako kalteen ordaina jasotzeko eskubidea izango dau.

HEMERETZIGARRENA: Aitorpen eta eskertasuna.

Alde biek alkarlana eta lankidetzat aitoritu eta eskertasuna agertzeko konpromisoa hartzen dabe, alkarregaz egiten dabezan ekimen eta programetan eta idazten dabezan agirietan.

HOGIEGARRENA: Legedi aplikagarria.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16. - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 15/07/2020
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 16/07/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 16/07/2020
07:52:46

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0099
Data: 03/06/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetako dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E400048D1400S2O2C4W8R3A3

Hitzarmen honeri honako legedia aplikatuko jako:

1. Diru-laguntzak arautzen dauzan 38/2003 Legea.
2. Diru-laguntzen Legearen Erregelamendua onartzen dauan 887/2006 Errege Dekretua.
3. Zuzenbide administratiboko arau orokorrak.
4. Zuzenbide pribatuko arau orokorrak.

Hori horrela, hitzarmenean aurreikusten ez dan guztirako, edozein zalantza argitu eta hitzarmena interpretatzeko, aitaturako legediak aurreikusitakoa jarraituko da zehatz.

HOGETABATGARRENA: Hitzarmenaren izaera administratiboa.

Hitzarmen honen izaera administratiboa da. Ondorioz, honen aplikazio edo interpretazioan hartzen diran erabagiak bide administratiboari amaiera emongo deutsee eta zuzenean aplikagarriak izango dira, Administrazioarekiko Auzibidean errekurrizkeo eskubidearen kalte barik.

HOGETABIGARRENA:

Hitzarmen hau eta emakidarako erabakia diru-laguntzen base nazionalean argitaratuko dira, sektore publikoa arrazionalizatzeari eta administrazioa erreformatzeko beste neurri batzuei buruzko irailaren 16ko 15/2014 Legeak aldatutako diru-laguntzen Lege Orokorraren 20. Artikulua betez.

Eta honela ager daiten honako hau emoten dabenez, agiri hau onartzen dabe, lau ale sinatuz, eragin bakarrerako.


**BERMEOKO UDALEKO
ALKATEA**
Aritz Abaroa Cantuariense

**KATE SAREA ALKARTEKO
LEHENDAKARIA**
Mirenlur Santiago Albestegi

**Jurdana Uriarte Lejarraga
IDAZKARI NAGUSIA**



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16. - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

	Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E400048D1400S2O2C4W8R3A3	Sinadurea eta data JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 15/07/2020 ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 16/07/2020 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 16/07/2020 07:52:46	EXPEDIENTE :: 2020IDA_ERA_0099 Data: 03/06/2020 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia
--	--	--	---

